



# ORUMENAKO TXIPIROIAK POEMAFARIA


**ERRIOGUARDA JATETXEA**  
AFARI BEGANOA/OROJALEA 30 EURO  
LANGABETU ETA PREKARIZATUEK 15 EURO

**APIRILAK 30 / 20:30**



IZENA EMANI  
LURRUKO DEJADA  
EKI OROJALEAN  
KANTZINA





# 1. jatetxe-atarian

abodi

doinua:  
Maddi Oihenart  
(2005)

musuz josiak  
begi biak.

oinetako bakoitzean  
oin bat.

hartz-zuri baten  
konpasa.

... gau ona pasa.



## 1.1. Oroimena

Oroimena:  
Aintzina gogoRAtzeko periskopia.

Etorkizuna:  
Oroimen ezineko aintzina.

Ikusmena:  
Azal oro begiRAtzeko zooma.

Begiak:  
Irudiak iRAkurtzeko ispiluak.

Irudimena:  
KanpoRAko itxurak zuritzeko labana.

Asmamena:  
Etorkizuna eguneRAtzeko sena.

## 1.2. Izan ere inork ba al daki

Izan ere inork ba al daki  
kantxako zein zentimetro kubikotan  
jokatu behar zaion imintzio bati  
aukerarik gabeko desafio zimurra.

Garaituko ez balu  
bekiola behintzat,  
dutxaren atsedeen etsia  
zilegi.

### 1.3. plantak

Zure begietan pausatu  
ta pasatzen utzi nauzu.

errekonozimendu lasai bat  
harrapatu dizut  
zure begien atzetik.

ea zortea duzun  
eta nitaz  
enamoratzen zaren.

## 1.4. neure buruari

Egunen batean hil beharragatik  
ez dut ero baten moduan ibiltzeko  
aski arrazoirik aurkitu.

Ez nuke inolaz ere  
gauza haundirik gabe  
bizitzeko beldurrik nahi.

Neure borondatez uzteko prest  
nagoen gutizi orotan  
nazkatu arte  
jarrai bezate  
orain arte bezala alferrik agintzen.

Norbaitek galdu beharragatik  
ez dut nik irabazi beharrik.

## 1.5. gau-giro

Ilargiaren azkazal zorrotzak  
larrutzen duenean arratsa  
eta izar lakarrek harramazkatzen  
mendiko abar iharrak,

desegin egiten dira ilunpetan etxeak,  
diharduenean hotzak hiltzen  
sukaldeko leihoaren argi erreak.

Lurraren azpiko oihartzun gorrak  
galduta dabiltzan tren baldarrak  
hurrupatzen ohi omen,  
eta errainuen artean hor nonbait:

txatarategi bat gainezka,  
sateliteak zilipurdika,  
eta irratia,  
distiraz irakiten.



## 2. sarrerak

### Hor zaude


doinua:  
Imanol  
(1982)

Hor zaude nolanahi.  
Mihin puntan mutu  
alferrikako ahaleginetan, ahaleginetan.

Hor zaude nolanahi.  
Distantzi jeltuen atzetik  
alferrikako ahaleginetan, ahaleginetan.

Hor zaude nolanahi.  
Buruaren apalen batean  
asanblada isiletan bildua, bildua.

Hor zaude nolanahi.  
Ispiluz osatutako  
kuboaren barru-erdian, zintzilik, zintzilik.



## 2.1. Txangurru bati bezala

Txangurru bati bezala,  
zuri ere,  
azken funtsetaraino  
urruptuko dizkizute  
adimenaren tarte  
goxuenak.

## 2.2. katuzainarena

Katu baten begiak,  
ilargia zaintzeko  
sarraila zulo zoliak.

Katu baten begiak,  
teilatuetan dabiltzan  
ikur fosforagarriak.

Katu baten begiak,  
ilunpe sakonetan  
izar-elurrez josiak.

Katu baten begiak,  
kolore askotako  
labanaren zauriak.

Katu baten begiak,  
ametsaren erdian  
arrainez bete-betiak.

### 2.3. Anaiari galtzerdiak janztea

Anaiari galtzerdiak janztea  
egokitu zaigun bakoitzean  
bigarren gerra mundiala  
berpiztu behar izan badugu,

ez da harritzekoa,

aurrean suertatzen zaion  
edozein zapata pareri  
lokarria askatzeko grina  
eraman ezina badu.

## 2.4. Trumilka izar txirbil

Trumilka izar txirbil,  
trumoiak askatzen dituzun  
burni puska.

Harridurak gratatzeko  
ikusmira ozena.

Ilunpetako metala  
eta  
laberinto fatala.

Ganbaz kargatuta  
isilik zauden  
txipiroi astuna.

Oihartzunak zulatzen  
ozar diharduzun  
tximista zitala.

Etorkizun oro  
eragozten duzun  
erraminta mortala.

## 2.5. in memorian

lagunarteko  
bazkari  
sobietikorik  
jatorrenaren  
postrea  
... opa.

klandestinitatearen  
txipiroi  
guztien  
okaso  
nostalgikoa  
... opa.

erlojuak  
erauzitako  
denboraren  
atseden  
mugagabea  
... opa.

nortasunik  
gabeko  
buruaren  
askatasun  
gardena  
... opa.

itsas  
izarretako  
freskotasun  
ugariaren  
iluna  
... opa.

lur azpiko  
sator hilari.

munduan  
German zenari  
ezin bestez,  
altxa tropa  
... ta opa.

Ze ...  
jadanik,  
asmak ez dik  
bizitzaren hatsik  
behartuko.

Ta ...  
kopeterdiko  
txulo beltzetik barrena,  
zilarrezko tximistak  
joa dik,  
eskumuturreko  
despertadorearen  
espero gabeko  
tutu tristea.

adios ...  
lur azpiko  
sator hila.

gaztetasun humila.  
galaxia hotzetan  
izar gorri baten bila  
habila.

### 3. plater nagusia

#### Jo ezan

doinua: Santi Gimenez  
(Imanol / Klabelin Komik, 1981)

Bizitza irrikituaren isiltasun barea.  
Ezin bestean...

Jo, Jo, Jo ezan  
Jo, Jo, Jo ezan  
Jo ezan

Hain astiro gogatutako soinua.

Jo, Jo, Jo ezan...

Hain emaro itzartutako larrua.

Jo, Jo, Jo ezan...

Hain luzaro edukitako mezua.

Bizitza irrikituaren isiltasun barea.  
Ezin bestean...

### 3.1. Orain ezikan, besteetan ere

Orain ezikan, besteetan ere  
ez dinat bizkarrik emango, Maddi,  
baina bihar arte, bederen, ez itzan  
suzko igitai zorrotzok itzali.

Irri maltzurrez txikitu ditén  
mila pusketan mailu baldar hau  
ta Thor traste honek, azken aldean,  
fandangoan aritzeko gogo gutxi.

Zitroin garratzez eskribituta  
bidaltzen dizkinat seinale goriok,  
hitzaren sotoan miatu nahi badun  
txaparen gainetik pasa itzan.

San Juan bezperan Venezian dinagu  
San Markosen plazan enkontrubide bat,  
inguratzen bahaiz, ez itzan ahaztu  
denbora bateko karramaru zaharrak.

### 3.2. nunquam superata

Europa zaharraren  
kartoizko buruhauskarri  
azpian,

sagar  
erre  
baten  
txustarra.

Han hemenka,  
behi guztien  
postrerik  
estimatuena.

Eta zerutik  
belar-metal  
gazta batek  
so.

### 3.3. c.a.t.

Rioko Azukre-Ogitatik etorritako  
Bihotz Sakratu hegalaria,

Igeldoko kartoizko gaztelua,

Hotel Londreseko tontorrean  
ereindako tipula ortodoxoa,

ta Kursaaileko zubian zelatan dauden  
getari borobil prefabrikableak  
zaintzeko,

esploradore kapela daramate  
Donostiako munizipalek.

Hiroxima ta Nagasakitik  
ekarritako tamaritzek berriz,  
bizar berde batzuk  
erakusten dituzte  
noizean behin besapetik,

ta Bulebarreko kiosko aurrean,  
artzainik gabeko inudeen artean,  
alkate potoloa aurrezkoa dantza ezinik.

### 3.4. inuxentearena

«Ez zara mundu honetarako»

esan zaio;

txiripaz,

halako batean,

mundu arrotz honetara

erori den inuxenteari.

«Hurrengoaren bidea urratuz

eskura dezakegu

dagokizun zorion apurra»

esan zaio;

txiripaz,

halako batean,

mundu arrotz honetara

erori den inuxenteari.

Bizitza luzeagoa,

agian areagoa

behar omen duelako;

aurrerabidearen zaldi biok,

ahalik eta azkarren

eta

ahalik eta urrutien,

bizitzaren atzetik

alde egiteko baizik

ez dutelako akaso balio...

«Lana eta borroka:

horra defentsarako

emango zaizkizun

erraminta bakarrak»

esan zaio;

txiripaz,

halako batean,

mundu eder honetara

erori den inuxente gaisoari

### 3.5. erronka

beldur naiz  
ezagutzen ez zaituenak  
inoiz zugar  
erreparatuko ote duen

beldur naiz  
iraun beharrak  
nolakoa nahi zintuzkegun  
ba ote digun  
ikusten uzten

beldur naiz  
zaren bezalakoa  
ba ote zaitugun  
behar bezainbat  
maite

beldur naiz  
gure haziak  
etorkizun-indarrik  
ba ote duen  
zurekin

beldur naiz  
zugar bat  
ez ote gintuzun  
beste egingo

nork bere burua  
asmatu ezean  
ezin du izan  
sekula betiko

## 4. postrea

### Katu bat bezala

doinua: Santi Gimenez  
(Imanol / Klabelin Komik, 1981)

Katu bat bezala  
obligatuta banago  
autodefentsan.


Zakur bat bezala  
galdu behar banaiz  
kaleetan zehar.

Bigarren kategoriako  
ardi errebelatu bat  
izan behar badut.

Giza-sare monolitiko hauetan  
harrapaturik banago,  
betiko.

nahiago dut lo  
nahiago dut lo  
nahiago dut lo

... amets bat bizitzeko  
adina banintz.



## 4.1. mapa mundi

Zuritu egin digute izakera,  
mugak bizar-aitzurrez bereizi.  
Kartoindu egin digute lurra,  
itsasoa paper urdinez estali.

Alanbradatan bilbatu gaituzte  
lerro paraleloz eta meridianoz.  
Zehatz-mehatz finkatu digute,  
txandapasean dagokigun gradua.

## 4.2. tian'an men

airean hondar-borroka  
haizea dabil orroka  
ate-zaindari, portalez kanpo  
hilezinezko dortoka

harrizko ganbeluak lo  
nolako ametsak; auskalo!  
aldameneko dragoia ere  
oraindik isilik dago

hojaldrezko jauregia  
harresi gorritz jantzia  
teilen gainetik erortzen zaio  
goxoki-lerde gaxia

ate guztiak itxirik  
apenas dago leihorik  
alegiatzko erretratua  
atalburuan zintzilik

Euskal Herria non dago?  
izarrei begira nago  
begiak heltzen duena baino  
pausoren bat harantzago

### 4.3. sinesmena

Elurrak hire begietan  
mamitu zirenean,  
zuhaitz bat bezala  
sentitu hintzen  
ilunpetan hazten.

basoan era single eta arruntean  
huts-hutsik bizitzen.

sentimendu bolada geldiek  
heldu ziaten tripa  
tristura hunkigarrietan.

gauaren eta izarren  
pisu ikaragarriaren azpian,  
hain apurra ikusi duk  
hire burua... !

Oi, lur hotza !  
Oi, lur hotza !  
Oi, lur hotza !

#### 4.4. Erakusten ez didazunaren

Erakusten ez didazunaren  
mapa papiroflexikoa  
asmatzea badago,  
ta zure bihotzaren azpiko  
karkabetan nabil,  
trolebusaren bigarren pisuko  
azken aulkian galduta.

Hurrengo orrialderako bidetxiorretatik,  
belarrezko petatxu zabalez  
konposatutako edredoietan barrena,  
zeu zara betiko gidari,  
ta neu, berriz,  
neure buruko fronte sakabanatuen mandatari,  
erabakirik gabeko korapilotan antzu.


Gure kaleidoskopio gandutuaren zorabioan  
ausartzen naizenetan,  
konprenitzen ez ditudan keinuak  
egiten dizkidazu,  
ta harrapatzen nauzun  
tabernatan oro  
kupidarik gabe lapurtzen,  
baxoerdian geratzen zaidan kondar bakarra.

## 4.5. aholku merkeak

Bere bizimodua zinez  
joriago desio duenak,  
ez dezala politika  
geroaren baitan hesi.

Atarramentuaren abantzuak  
errekeritzen duen oldarra  
erramintan prest daukanak,  
ez dezala rebo luzioa  
politikaren baitan utzi.

Altxorraren alderdiren bat  
Orain bertan zor zaio.



## 5. kafea eta kopa

### Ta ezin etsi

doinua: Fran Lasuen  
(1996)

Hor zaude, nola nahi,  
mihin puntan mutu  
alferrikako ahaleginetan,  
ezin, ezin egon nagietan. (bis)

Hor zaude, nola nahi,  
mihin puntan mutu  
alferrikako ahaleginetan,  
distantzi jelatuen atzetik  
[kuboaren barru-erdian]  
ezin egon nagietan.

Hor zaude, nola nahi,  
bildua, asanblada isiletan,  
zeure buruaren apalen batean.

Ta ezin etsi, ta ezin ase.  
Ta ezin ase, ta ezin etsi.



## 5.1. immolazioa

Bere buruaz  
beste  
(paperezko  
lili bat)  
egin du  
kaxka  
motzeko  
poxpolu  
bontzoak.

## 5.2. baietz!

Akabatu ziren  
errege magoen  
ikatz gozoak.

Izpiritu santuaren  
hegaletan jarrita  
pantera arrosa  
baletor...

ukabila lekarke  
goratik jasota.

Troiako zaldiaren  
sabelean gordeta  
pantera arrosa  
baletor...

sua lekarke  
ikastoletako haurrentzat.

### 5.3. Hala ere, nahiz Wolframioa

Hala ere, nahiz Wolframioa  
orobat Penizilina  
edo Loteria asmatzeko  
beste biderik ez dago.

Gauregungo etorkizuna kontatzeko  
hatzamarrak nahikoak dira.

## 5.4. txostena

Etzazula portzentaia minimo batez, bederen,  
etorkizun inplizitoetan hil zaitzaten utz.

Tabernaz taberna,  
hankapuntetan ibiliko bagara ere,  
ez dezatela biltzarretan zure begi urdinek  
mozorroaren azpiko negar saminik isuri.

Dagoeneko kasikan ez ditut  
zure aparatu digestiboaren  
azken taupadak konprenitzen

baina, parentesi artean esango banizu,  
ekarri dituzten bokadilloak ez direla  
azken finean baino guretzat...

Belardietan ez da  
zure aldeko papera besterik ageri;  
«delinkuentzia internazionalaren anaiek oro  
lurrazpiko aparkalekuetan errekeritzen zaituzte».


## 5.5. arretaz

Azare itsuaren eginahalak  
denboraren poderioz  
izar berriak pizten ditu.

Etorkizunaren asmoak  
eta  
asmakizun dirautenak  
batera datozenean  
gizonak ezagutu egiten du.

Ezer ikaskizun dirauen artio  
jakin eta ez dakienaren arteko oreka  
beti izango da neurri berekoa.

Gure oroimen ahulak  
ahalegin ikaragarriak  
egin behar ditu  
nahiz hemen bertako etorkizunari  
imintzio zorri bat  
harrapatuko dion.



Liburuxka honetako testu guztiak  
Rafa Egigurenek idatziak dira,  
eta Hernanin irakurri  
edota kantatu ziren,  
jendaurrean,  
2019ko apirilaren 30ean,  
*Urumeako txipiroiak* izeneko  
poemafarian



李白

Li Bai

子夜吳歌

長安一片月  
方戶搗衣聲  
秋風吹不儘  
總是玉關情  
何日平胡虜  
民人罷遠征

Wu aldean gauez kantari

argizari erdi bat begira  
Chang'an-go gau giroaren jabe  
hamar mila auzo ari dira  
arroparen garbiketan ozen  
urriteko haize bihurria  
Yu Guàn barna dabil oroiminez  
noiz egingo du men tartariak  
joandakoak etxera daitezen?

## 蝶的梦

昔者庄周梦为胡蝶，栩栩然胡蝶也。自喻适志与。不知周也。俄然觉，则蘧蘧然周也。不知周之梦为胡蝶与？胡蝶之梦为周与？周与胡蝶则必有分矣。此之谓物化。

## mitxeletaren ametsa

Aspaldi hartan, Zhuang maisua, ametsetan, zentzurik gabe, tximeleta bihurtu zen. Atseginez beterik, zentzurik gabe, tximeleta bat zen, eta hegan zebilen. Atsegin hartzen zuen, baina ez zekien Zhuang maisua zela. Halako batean, atzarri, eta, harrituta, maisu bihurtu zen. Maisuak ez zekien, ametsetan, zentzurik gabe, tximeleta bihurtu ote zen, edo tximeleta, ametsetan, zentzurik gabe, maisu bihurtu ote zen. Zhuang maisua eta tximeleta, noski, ez ziren bat. Horra, nola diren izakiak eraldatzen!

(Wang Wei, Du Fu eta Li Bai-ren baimenarekin, Zhuang maisuak orain dela hogeita lau mende idatzitako pasarte bat)

李白

Li Bai

敬亭獨坐

**Jing Ting mendian  
eserita bakarrik**

眾鳥高飛盡  
孤雲獨去閒  
相看兩不厭  
只有敬亭山

airean goi, txoriak barreiu  
azken hodei bat desegin berri  
Jing Ting mendi tzarra eta biok  
elkarri so, aspertu ezinik

李白

古風

西上蓮花山  
迢迢見明星  
素手把芙蓉  
虛步躡太清  
霓裳曳廣帶  
飄拂升天行  
邀我登雲臺  
高揖衛叔卿

Li Bai

**aspaldiko ahaireak**

urrunean artizarra dirdai  
Lin Huà-ra naiz sartaldetik igo  
hatz zurion artean loto bat  
gaineko huts gardenean dago  
haizearen hegaletan gora  
ostadarrak gerrikoa laxo  
aspaldiko Weì Shu Qing-engana  
erregutzen ari zait joateko

慌慌與之去  
駕鴻凌紫冥  
俯視洛陽川  
茫茫走胡兵  
流血塗野草  
豺狼盡冠纓

bere bila, antzarren gidari  
oskorrian ezin arinago  
lurrari so, Luò Yang-eko urak  
lerroz lerro, etsaiak eraso  
otsoak al dira txanoz jantzi?  
belarretan lokatz eta odol

王維

Wang Wei

送別

下馬飲君酒  
問君何所之  
君言不得意  
歸臥南山陲  
但去莫夏問  
白雲無儘的

agurra

katilu bat ardo opa eta  
lur gainera jaitsi da zalditik  
zeren bila dabilen, galdezka  
ezin jaso erantzun garbirik  
hegoko goi-mendietan galdu  
eta lasai ederrean bizi  
nora doan zehatz ez du esan  
baina hodei zurien atzetik

李白

關山月

明月出天山  
蒼茫雲海間  
長風幾萬里  
吹度玉門關  
漢下白登道  
胡窺青海灣  
由來征戰地  
不見有人還

Li Bai

**ilargia haitz artean**

ilargia Tiàn menditik gora  
goiko itsas zabalaren jabe  
Yu-ko haitzen artean haizea  
milaka li ziztuka tai gabe  
Bàì Deng-era bidean handarrak  
Qing Hàì golko baitan etsai-olde  
guda-leku arriskuz betea  
ezin egin bertatik at ihes

戍客望邊邑  
思歸多苦顏  
高樓當此夜  
嘆息夫應閑

mugari so, etorri berriak  
herriminez, jende asko goibel  
gaur gauean dorretxeak oro  
atalagaz itxita tamalez

杜甫

至德二載

此道昔歸順  
西郊胡正繁  
至伶猶破膽  
應有夫招魂  
近侍歸京邑  
移宮祀至尊  
無才日衰老  
駐馬望千門

Du Fu

**Zhide garaiko  
bigarren urtean**

aspalditik, zoritxarrez, mende  
sartaldetik at bederin etsai  
orain ere, beldurra nagusi  
ene baitan arimak alderrai  
gortearen zerbitzura berriz  
erregea bera ote dut zain?  
buru arin, urteetan gora  
zalditik so, mila ate bikain

王維

Wang Wei

鳥鳴澗

人閒桂花落  
夜靜春山空  
月出驚山鳥  
時鳴春澗中

**errekan txorrotxio**

arratsean mendian bakarrik  
lozez lore kanela lurrera  
txori-sail bat ilgoraren izu  
txorrotxioz beterik erreka

李白

Li Bai

春思

燕草如碧絲  
秦桑低綠枝  
當君懷歸日  
是妾斷腸時  
春風不相識  
何要人囉幃

**oroiminez bedatsean**

zeinen eder den Yen-go belarra  
zeta-firu urdina dirudi  
Qin aldeko masusta berdatsok  
ezin eutsi aleen zamari  
maitalea, bere jaunaren zain  
ohaideak, erraietan samin  
bedatseko haize arrotz, zertan  
habil leiho-saretan jostari?

李白

送友人

青山橫北郭  
白水遶東城  
此地一為別  
孤蓬萬里征  
浮雲遊子意  
落日故人情  
揮手自茲去  
蕭蕭班馬鳴

Li Bai

**adio, lagun**

iparreko atetik at, mendi  
sortaldeko murrupen, ura  
alderdiok utzi bezain laster  
urrumbide kuku-belar zurtzak  
hodei lokak nolako bidaro!  
aspaldiko lagunen gomuta  
zaldi sailak irrintziz irrintzi  
agurtzeko, eskuaz keinuka

杜甫

望嶽

岱宗夫何如  
齊魯青夫了  
造化鐘神秀  
陰陽割昏曉  
暎胸生層雲  
決眚入歸鳥  
會當凌絕頂  
一覽眾山小

Du Fu

**Tai mendiari so**

horra hor Tai, eta nola gero!  
Chi eta Lu, berdats mugagabe  
aldiz egun, aldiz ilunabar  
natura goi-hatsaren aldare  
ohantzera bidean txoriak  
bular aratz, hodei-eragile  
so batean, oro mendi koxkor  
gain guztiak elurpean daude

杜甫

春夜喜雨

好雨知時節  
當春乃發生  
隨風潛入夜  
潤物細無聲  
野徑雲俱黑  
江船火獨明  
曉看紅濕處  
花重錦官城

Du Fu

**euria gozo-gozo  
bedatseko gau batean**

euria noiz erori badaki  
aurten ere garaiz bedatsean  
haizearen eran ernaltzeko  
gauzak oro gauaren gordean  
bidetxurrak hodeipean goibel  
argi bizi bat ontzi gainean  
lore kutun, mandarin dotore  
ortzi gorri, egunabarrean

杜甫

月夜憶舍弟

戍鼓斷人行  
秋邊一雁聲  
露從今夜白  
月是故鄉明  
有弟昆分散  
無家問死生  
寄書長不達  
況乃夫休兵

Du Fu

**anaien oroiminez  
gauetz ilargitan**

espaloiak danborrekin izu  
basantzarrak urriaren berri  
ilargia sorterrian dirdai  
ihintzetan gaua jada zuri  
senideak erabat barreiu  
etxetik at, hil ala bizirik?  
luzaroan eskutizik gabe  
su-etena gaur helduko balitz!

李白

Li Bai

秋浦歌

爐火照天地  
紅星亂紫煙  
赧郎明月夜  
歌曲動寒川

**Qiù Pu-ko kanta bat**

inarrak ke ubeletan dantzan  
olaria ilargitan gorri  
kantaz kanta, ur hotzak borborka  
ola zeru-lurren antzirudi

王維

Wang Wei

辛夷塢

木末芙蓉花  
山中發紅萼  
澗戶寂無人  
紛紛開且落

**magnoliaren muinoa**

erroitzeko bordan bakardade  
alez ale mendi arte gorri  
abarretan ernamuinak lore  
aiko-maiko, lurrean ugari

李白

Li Bai

尋山僧不遇作

石徑入舟壑  
松門閉青苔  
閑階有鳥跡  
禪室無人開  
窺窗見白拂  
挂壁生塵埃  
使我空嘆息  
欲去仍徘徊

**mendirá janari bila  
eta bertan inor ez**

ibar-bide gorrian txintxarra  
zuresia goroldioz itsu  
langaretan txorien arrasto  
goi-hatsaren gelan ezin sartu  
leihotik so, erraxko zuri bat  
gakoan zain, hautsak estali du  
zoritxarrez alferrik bisita  
itzultzeko oteketan antzu

香雲偏山起  
花雨從天來  
己有空樂好  
況聞青猿儗  
了然絕世事  
此地方悠哉

mendietan gora usain gozo  
lõrea tai gaberik ari du  
ene baitan melodia eder  
urrunean tximuaren oihu  
arazoak oro atzenduta  
inguramen hauetan barreiu

杜甫

Du Fu

彭衙行

憶昔避賊初  
北走經險艱  
夜深彭衙道  
月照白水山  
盡室久徒步  
逢人多厚顏  
參差谷鳥吟  
不見遊子還

Peng Ya

ipar-aldi beltzetan beltzena  
ihesian etsaiarengandik  
gau ilunak Peng Ya-ra bitarte  
Bai Shui mendi gainean ilargi  
zenbat urrats emazterik gabe!  
arrotzaren aurrean lotsati  
itzuliko bidean inor ez  
beleak goi-azpitan ausarki

痴女饑咬我  
啼畏虎狼聞  
懷中掩其口  
反側聲愈嗔  
小兒強解事  
故索苦李餐  
一旬半雷雨  
泥濘相牽攀

alabak kosk egiten dit gosez  
otso eta tigreak txit hurbil  
ezin beso artean mintzuldu  
garrasika behin eta berriz  
barrenak gur-gur, okaran eske  
ume batek ezin du konpreni  
hamarretik bost egunez ekaitz  
lokatzetan erabat bustirik

既無禦雨備  
徑滑衣又寒  
有時經契闊  
竟日數里間  
野果充餽糧  
卑杖成屋椽  
早行石上水  
暮宿天邊煙

euripean estalperik gabe  
arropak hotz, zidorretan irrist  
gehienetan tristuraren mende  
egun oso batean hamar li  
abar xumez aterpea jaso  
oihaneko fruituak janari  
arratsez ke bat noiz agertuko  
legarretan oinez goiz-goizetik

少留同家窪  
欲出蘆子關  
故人有孫宰  
高義薄曾雲  
延客已曛黑  
張燈啟重門  
煖湯濯我足  
剪紙招我魂

atseden bat Tong Jià-ko zuloan  
azkenean Lu Zu-ra iritsi  
aspaldiko Sun Zai daukagu zain  
zein ona den zeruak badaki  
ate tzarrak dizkigu zabaldu  
gau beltzean argia da egin  
ur epela oinak garbitzeko  
paperezko farfailak opari

從此出妻孥  
相視涕闌干  
眾雛爛漫睡  
喚起霑盤餐  
誓將與夫子  
永結為弟昆  
遂空所坐堂  
安居奉我歡

bertan dago bere familia  
elkarri so, malkoak darizkit  
ene seme-alabak ausaz lo  
edan eta jan-eskaintza berriz  
zin dagigun denon izenean  
elkartasun ederrean beti  
gero solas egin dugu salan  
zoriona zinez opatu dit

誰肯艱難際  
豁達露心肝  
別來歲月周  
胡羯仍構患  
何當有翅翎  
飛去墮爾前

zoritxarrik ez du inork behar  
esku zabal bihotz-bihotzetik  
urtebete joan da jadaneko  
tartariak zorigaitz-iturri  
ai!, hegoak izango banitu  
zure bila nindoake sarri

王維

Wang Wei

雜詩

君自故鄉來  
應知故鄉事  
來日綺窗前  
寒梅著花夫

**olerki xume bat**

jauna, ene sorterritik zatoz  
hango berri ooren jakile  
esan, otoi, leiho honen aitzin  
eman al du arandiak lore?

王維

Wang Wei

鹿柴

空山不見人  
但聞人語響  
返景入深林  
復照青苔上

**oreinaren hesia**

ez den arren jenderik ageri  
mendi arte galduotan zurmur  
arratseko printzak oihanean  
goroldio gainean oihartzun

杜甫

前出塞

挽弓當晚強  
用箭當用長  
射人先射馬  
擒賊先擒王  
殺人亦有限  
列國自有疆  
苟能制侵凌  
豈在多殺傷

Du Fu

**mugatik irten aurretik**

eutsi uztai-hariari tinko  
atezuan geziari tira  
zaldunaren aitzin, zaldia jo  
gudarien aitzin, jenerala  
neurrigabe hiltzerik ez dago  
atzerriak badu bere muga  
ez al dira sobera erori?  
arauren bat, besterik ez bada

王維

Wang Wei

竹里館

獨坐幽篁裡  
彈琴復長嘯  
深林人不知  
明月來相照

**banbuen artean**

oihanean denon isilean  
banbuetan eseri naiz trankil  
zitara jo bitarte, txistuka  
ilargiak nau distiraz jantzi

李白

Li Bai

下終南山

暮從碧山下  
山月隨人歸  
卻顧所來徑  
蒼蒼橫翠微  
相攜及田家  
童稚開荆扉  
綠竹入幽徑  
青夢拂行衣

**Zhong Nan mendian behera**

atzera so, iragan zidorra  
altzo sakon, itzal, mugagabe  
arrats apal, gain berdatsei bizkar  
ilargia bueltan adiskide  
etxeraino eskutik helduta  
morroia zain, ataka zabaltzen  
xendra banbu urdinez gainezka  
arropetan arantzen seinale

歡言得所憩  
美酒聊共揮  
長歌吟松風  
曲儘河星稀  
我醉君復樂  
陶然共忘機

alaikiro, lasai ederrean  
solasean, ardoz asebeta  
“pinuetan haizea” kantari  
azkenean, izarrak indarge  
ni neu mozkor; zu, berriz, pizturik  
elkarrekin penak ito arte

王維

Wang Wei

漆園

古人非傲更  
自闕經務世  
偶寄一微官  
婆娑數株樹

**zumakeen lorategian**

asabak ez ziren gortezale  
aski zuten kargu txikiren bat  
norberaren arabera, nola  
balantzaka dabilen kukula

王維

酬張少府

晚年唯好靜  
萬事不關心  
自顧無長策  
空知返舊林  
松風吹解帶  
山月照彈琴  
君問窮通理  
魚歌入浦深

Wang Wei

**Zhang ordezkari  
nagusiarentzako  
erantzuna**

atsedena maite du zaharrak  
hamar mila izakiei muzin  
bere baitan asmo luzerik ez  
oihanetik itzultzen doi daki  
haizeak putz, gerrikoa laxo  
ilargiak zitaran imurtzi  
ur ertzetan arrantzale-kantak  
zertarako hainbeste katramil?

西施詠

艷色天下重  
西施寧久微  
朝為越溪女  
暮作吳宮妃  
賊日豈殊眾  
貴來方悟稀  
邀人傅脂粉  
不自著囉衣

**Xi Shi-ren kanta**

ortzi pean xarma zen nagusi  
Xi Shi-rena nola luzaz gorde?  
goizean Yuè errekan bogada  
gauetz Wu-ko jaunaren maitale  
goi-mailako dama buruargi  
itzalean horren arrunt ote?  
apain-lanak neskameen esku  
beste batek omen zuen janzten

君寵益驕態  
君憐無是非  
當時浣紗伴  
莫得同車歸  
持謝鄰家子  
效顰安可希

aire galant, ezin politago  
akatsik ez, erregeren ustez  
auzuneko alabak keinuka  
bere bekain bihurrien minez  
lagunekin bainatzen zen baina  
zalgurdian lekurik ez dute

杜甫

Du Fu

絕句

江碧鳥逾白  
山青花欲燃  
今春看又過  
何日是歸年

**ur urdinak**

ur urdinak txoriz zuri-zuri  
gain berdatsak su hartuta lorez  
joan doan primaderari so  
zein egun da?  
zein urtetan gaude?

王維

終南別業

中歲頗好道  
晚家南山陲  
興來每獨往  
勝事空自知  
行到水窮處  
坐看雲起時  
偶然值林叟  
談笑無還期

Wang Wei

**Zhong Nan mendipeko borda**

on da garai erdian bidea  
arratsean Zhong Nan pean babes  
gogoaren arabera, baina  
beti ene buruaren jabe  
pausoz pauso iturbegiraino  
bakean sor, hodeiak altxatzen  
ezustean, basoan maisu bat  
solasean, ezin egin alde

杜甫

別房太尉墓

他鄉復行役  
駐馬別孤墳  
近洎無乾土  
低空有斷雲  
對棋陪謝傳  
把劍覓徐君  
唯見林花落  
蔦啼送客聞

Du Fu

**agur Fang buruzagi handiari  
bere hilarriaren aurrean**

aspaldiko partez, sörterrian  
bridari tenk, sasipean lausa  
oin azpiko lurak malkoz busti  
hodei-mordo puskak arrastaka  
xakean Xiè banu jolaskide  
edo Xu-ren ezpata baneuka  
galtxoriek bidaztiei agur  
oihanaren zolan lore-jasa

李白

Li Bai

頽峰頂寺

夜宿峰頂寺  
舉手捫星辰  
不敢高聲語  
恐驚天上人

**tontorreko tenpluan**

tontorreko tenpluan gauaro  
izarrak hatz-muturrokin uki  
ozen mintzo gabe, baitezpada  
hilezinak ez daiten. atzarri